

A

1518.eko irailaren 20an Sanlucar de Barramedatik abiatu zen 239 marinelez eta bost ontziz osaturiko espedizioa, Gaztelaren menpeko itsasoak zeharkatzeko asmoz.

Espedizioak arazo eta zailtasun handiak izan zituen eta, Fernando Magallanes, Filipinetan hil zenean gure esploratzailea Victoria itsasontziaren kapitain izendatu zuten.

Victoria itsasontzia Zarautzen egin zuten, egurrez; 102 tonako edukiera zuen, 28 metroko luzera eta 7,5 metroko erruna edo zabalera. Espedizioa abiatu zenean, 45 kidek osatzen zuten ontziko eskifaia.

2010. urtean Sevilatik atera eta Donostiara bueltatu zen, Australian lortutako diruarekin erositako motorran.

1518 inguruan Sevillara joan zen. Han, Fernando Magallanes ezagutu zuen. Magallanesek ekialdeko Indietara joateko bide berri bat aurkitzeko asmoa zuen, Hego Amerikako igaroleku baten bitartez Moluka irletara joateko, Afrika kontinentearen ertzak inguratu gabe eta Portugalgo domeinuak zeharkatu gabe.

Getarian, **1476.** urtean jaio zela uste da. Familiakoak arrantzaleak eta marinela ziren, eta ontzi eta etxe propioa zuten. Bederatzi anai-arreba ziren eta bera zen anaia zaharrena. Euskalduna zen, baina ez gaur egungo euskaldunak bezalakoa: ohitura batzuk antzekoak ziren, baina janzkera berezia zuten; normalean kapela handi bat zeramaten, galtza zabalak eta sorbaldan kapa handi bat.

1918. urtean Getariatik Sevillara joatea erabaki zuen; bidaia arriskutsua benetan. Arabiarren kontrako gerran parte hartu zuen Madriletik, igarotzeko asmoa zuenean.

Espedizioaren ardura zuen eta, poltugaldarren menpe zeuden itsasoak zeharkatuz, mendebalderantz abiatzea erabaki zuen, ezagunak ziren itsasbideak erabiliz Sevillara bueltatzeko. Ibilbide horri jarraituz, Indiar Ozeanoa eta Afrika inguratuz, munduari lehenengo bira osoa ematea lortu zuen. **1522.** urteko irailaren 6an heldu ziren 17 lagun itsasontzi bakar batean.

Moluketara joateko beste espedizio batean hil zen eskorbutoarene eraginez, **1526** urteko abuztuaren 4an.

Bidaia horretan lehenengo aldiz Lurrari bira osoa ematea lortu zen, bidean ezezagunak ziren lurralde eta itsasoak zeharkatuz. Lorpen hori garai hartarako aurrerapauso ikaragarria izan zen, Lurra biribila zela frogatu zuelako eta itsasbide berriak ezagutu zituztelako. Garai hartako marinelik onenetarikoa izan zen eta Espainiako erregeak armarri berezia eman zion.